

Balorezko proposamena

Ekoitzi nahi ditugun betaurrekoak ez dira guztiek ezagutzen ditugun bezalakoak, berezitasun handia dute; alde batetik, gure betaurrekoak ekoizterakoan ingurumena zaintzen dugu urtero aldatu beharko ez ditugulako eta bestetik, bezeroaren poltsikorako errentagarria da, luzera aurrezten amaitzen dutelako.

Gure produktuarekin kristal pare bakarra erosi behar da eta haiekin bezeroak nahi dituen beste armazoi. Gainera, ACLE betaurrekoak erosterakoan bezeroak nahi duen diseinua aukera dezake, kolore ezberdinetako edota itxura anitzeko egitura ipiniz. Egunean janzten duten arroparekin betaurreko berriak estreinatzeke aukera izango dutelarik.

Betaurrekoak egitura ezberdinekoak izan daitezke, beraz, material ugari daude hauek ekoizteko:

- **Pastako betaurrekoak:** Ez dirudien arren, gehien erabiltzen diren betaurreko motak dira, eta egitura horretako kolore askotakoak ekoitzi daitezke forma ezberdinekin.
- **Azetatoa** betaurrekoen egiturari kolorea ematen dion materiala da. Kolore horiek ostadarraren barruan egon behar dira, bestela nahasteak egin beharko dira.
 - **Titanioa** betaurrekoen egitura gris kolorea izatea nahi izatekotan erabiliko duguna. Material arina, malgua eta iraunkorra da, beraz, luxuzko produktuak egiteko aproposa. Materiala garestia bada ere, egun osoan betaurrekoak eraman behar dituzten pertsoneri gomendatzen zaie.
 - **ULTEM:** Egitura mota honek goi-kalitatea eskaintzen dute iraunkortasuna, elastikotasuna eta memoriari dagokionez.

Baina hasieran, gure betaurrekoen egitura, titanioz eginda egongo dira. Material egokiaena da ekoizpenean hasteko. Kalitate oneko materialen da eta merkeenetarikoa.

Kontuan hartu behar dugun beste elementu bat gure produktuaren eskuragarritasuna izango da, hau da, bezeroak non bizi, gertu izango dute gure denda. Hasiera batean lonja batean hasiko gara, denda itxura emanaz, ez da hiriburuan egongo baina gure produktua hasteko lehen pausua ona dela pentsatzen dugu.

Ostean dena ondo joatekotan, hiriburura mugituko ginateke gure produktua jende gehiagori heltzeko, baina hori egin baino lehen, denda online bat sortuko genuke atzerritik edo beste probintzia bateko bezeroengana errazago iristeko. Salmenta modu honek kostuak aurreztuko dizkigularik.